

G

ogoratzten dituzue pasa den urteko egun zoragarri horiek, ezta? Bada, errepikatzeke edota gainditzeko aukera daukazue hemendik gutxira: egun batzuk baino ez dira falta Aste Nagusia hasteko! Hori bai, dena prestatzeko **LAN EGIN BEHAR DA**. Badakizue, pila alkalinoak jarri eta aurrera...
“Goazen, euskaldun guztiok...”

h


a

u

h

a

u



BADATUZ JAIK!!!

Bai konpartsa-
ki de maiteok,
jaiak gainean
ditugu eta iazkoa
hobetzeko intentzioa
daukagunez berehala
hasi behar dugu lane-
an.

Konpartsa guztioi dagoki-
gu, guztiok gara partaide
eta guztiok egin beharko
genuke lan Aste Nagusia
antolatuzko.

Horrela gainera, guztiok lan
eginez askoz ere jasanko-

rragoa egingo zaizkigu
muntaia, desmuntaia eta
aurretik eta tartean dauden
guztiak. Hau da modu
bakarra Aste Nagusia alai-
ago eta atsedentsuago gozat-
zeko.

Beraz ipurdiak mugitu eta
"pilak jarri", Konpartzak
zuen guztion beharra bai-
tauka.

Hau...hau erredakzio talde-
ak aurretik mehatxatu nahi
ditu orrialde hauek bitartez
lan egin nahi ez dutenak —

Espainiako justizia errepre-
soreari muzin eginez—.

Badakizue, Hau...hau-ren
portada handia da, zuen
argazkiak ditugu eta gaur
egun ordenagailuen bitar-
tez edozein gauza lor daite-
ke.

lan egiten ez duenak bere
burua ikusi dezake
Hau...hau-ko azalean
Deustua, Santutxu, Alde
Zaharra eta Bilbo
Zaharreko tabernetatik
zehar.

Jada Deustuko lagun bat-
zuen argazkitxoak jaso
ditugu pisuan eta artxibate-
gian hurrengo bi urteetara-
ko materiala aurkitu dugu.
Ia guztiak zaudete, beraz
argi ibili eta beldurra izan.

Lan-egutegi bat prestatuko
dizuegu guztiok zer egin
behar den eta noiz jakin
dezazuen.

Lista pasatuko dugu.

Besterik gabe agur. (Je,je).

TXOSNAKO TXANDAK

KODEA	A	B	C	D
ORDUA	9:00/15:00	15:00/21:00	21:00/03:00	03:00/09:00
LARUNBATA	()	(6/7)	(12)	(12)
IGANDEA	(4)	(6)	(10)	(8)
ASTELEHENA	(2/3)	(6)	(10)	(8)
ASTEARTEA	(2/3)	(6)	(10)	(8)
ASTEAZKENA	(2/3)	(6)	(10)	(8)
OSTEGUNA	(2/3)	(6)	(10)	(8)
OSTIRALA	(2/3)	(6/7)	(12)	(12)
LARUNBATA	(4)	(6)	(12)	(12)
IGANDEA	(4)	()	()	()

Apuntatzeko, pisutik pasatu eta konprobatu jada hartuta dauden txandak.

Txosnaz aparte, adi egon milaka ekintzak baitaude Aste Nagusian eta leku guztietan egoten saiatu beharko gara eta.

TXANDAK BETETZEKO ZENBAIT OIHAR:

Aurreko taulan kaxetxoan artean agertzen diren zenba-
kiak turnoa betetzeko pertsona kopuru gomendatua de-
la kontutan harturik, eta aurten egun bakoitzeko txan-
den kopurua lau izatea erabaki genuenez (9-9-24),
turnoak betetzeko koadrila ezberdinak elkartu beharko
direla kontutan hartu txandak aukeratzekoan..

Honetaz gain, eta txanden funtzionamendua egokia-
goa eta eraginkorragoa izan dadin, tumonik zailenak
esperientziadun jendeak bete ditzan saiatu behar gara.
9:00 / 15:00

Aurreko txandak utzitako omiduren beharrak konpro-
batu eta eskariak egin.

Omidurak ekartzean albaranak konprobatu eta ekarri-
takoarekin konparatu.

Makinak berrakusi eta behar izanez gero teknikoet

deitu.

Txozna, biltegia eta sukaldia txukundu.

15:00 / 21:00

Hozkailuak bete, zabaldu beharreko botilak prestatu...

20:00etan plantxa berotzen jarri eta txorizoak egotzen.

21:00 / 03:00

Turnoa gogorra izanez gero pertsona bi arduratu behar
dira basuak eta barrilak berritzeaz eta hozgailuak
betetzeaz.

23:00 tan, su ikusgarriak direla eta, argiak amatatu
beharko dira.

Txanda bakoitzean pertsona batek sukaldako ardura-
dunak lagundu beharko ditu.

03:00 / 09:00

Turnoa gogorra izanez gero pertsona bi arduratu behar
dira basuak eta barrilak berritzeaz eta hozgailuak
betetzeaz.

Txanda bakoitzean pertsona batek sukaldako ardura-
dunak lagundu beharko ditu.

Falta diren edari eta jakien zerrenda egin eta hurrengo
txandakoei adierazi.

Goizeko 08:00 inguruan txozna txukuntzen hasi.




Txanda guztietan kontutan hartzekoa izango da:

Biltegiaren antolakuntza ona izan dadila, garrantzit-
sua izango da bukatutako edariak eta barrilak, betetik
daudenetatik bereiztutako uztea, modu antolatuan.

Txanda bakoitzaren bukaeran barra eta sukaldia apur
bat txukundu.

Hurrengo txandan egindakoaren eta egin beharreko-
aren berri ematea.

Ondo finkatu hartzen den txanda zein egunetako den,
eta aurreko urtean gertatutako hutsuneak saihesten
ditugun.



GERRY & TXERRI

Orain dela gutxi, Belfasteko Stormont jauregian gelikoz egindako diskurtsoa bota zuten lehenengo aldiz.

Gaelikozko hitzak Gerry Adams Sinn Fein —Gu bakarrik— irlandar alderdi errepublikarreko lehendakariaren ahotik irtetzen ziren bitartean Ian Paisley izeneko gorputz itxuraga-

bea eta koipetsuak hiltzen ari diren txerri baten tanke-rra hartu zuen, botatzen zituen garrasi eta arnashot-sengatik.

Hau honela izanik, Hau...hauk biak Billbora konbidatzea erabaki du, hori bai, arrazoi eta helburu ezberdinak direla medio.

Gerry Adams, Hau Pittu Hau konpartsaren txosnara konbidatzen dugu, irlandar

kultura eta hizkuntzaren alde erakutsitako jarrera tinkoagatik, sari bezala.

Ian Paisley berriz, bere saltan egon dadin, santo Tomasetako saria izateko konbidatu dugu. Odolostea eta pernila soberan datorren urtean!!

Lehenengoari —gure gaeliko eskasaz asmatzen badugu—, Thocaigh ár la.

Bigarrenari, Kurrin, kurrin.

Kaixo, nor zara?

Baaa... Iñako, HorDagokide bat, besterik gabe.

**Egunkariako zein atale-
tan idazten duzu zuk?**

Ez dut idazten. Ni konpar-
tsakide bat naiz. Idazten
duena beste bat da, ni
laguntzailea naiz.

**Dena den, emaidazu
datorren Aste
Nagusirako titularra...**

(Denboratxo bat pasa
ondoren) Aste Nagusia
hogeigarren urtemugan.

Badakizu musean?

Bai.

**Normalean, baietz esaten
al diezu ordagoei?**

Bai. Gainera, geu gara
Bilboko jaietan mus txapel-
keta antolatzen dugunok.

Eta irabazten al dituzu?

Ez.

**Galdera hau behartuta
egiten dizut.**

**Elefantearen polemika
gainditu ahal izango
dugu inoiz zuek eta guk?**

Bueno... Zuek gaindituta
omen daukazue, marraski-
loarekin zabilzatenez...

Hasikeran gu bion arteko
kontu bat izan zen, baina
gero gu geratu gara sinbo-
loarekin eta zuek marraski-
loarekin geratu behar izan
zineten, besterik ezin zenu-
telako egin.



Garmendia confía en el trilingüismo del país

Ei Mundo

Jakina. Hegoaldean, gaztelera; Iparraldean, frantsesa; eta bietan, ingelera.

Y encima, algunos carteles en euskera están mal

Egin

Badakizue istorioa. Mosquera jaunaren ustez, Gasteizko osasun zentruetako errotilu elebidunek biztanlegoa nahasten dute. Eginek, erderaz nola ez, argitaratu zuenez, errotiluak aski garbiak dira, euskarazko zatia erabat txarto dagoen batzuk izan ezik. Beti bazterrak nahasten.

Espainiako Gobernuak Egin eta Egin Irratia itxi ditu

Hau Pittu Hau konpartsaren agerkaria den Hau...Hauko erredakzioak Egin eta Egin Irratiaren atxilotu, zuzendaritza zein langileei elkartasun osoa adierazi nahi die une latz hauetan. Era berean, komunikabide hauek mugimendu euskaltzaleari emandako garrantzia ezkertuz, proiektua indarberritzera animatzen die.

Zeanuriko udalekuan hasi zen Euskal Herriaren kontrako estrategia luze baten azken katea baino ez da izan azken hau. Hots, eraso berriak etorriko dira ere eta Euskal Herriaren eta euskararen aldeko lana inoiz baino handiagoa, inoiz baino eraginkorra egin beharko dugu euskaltzale guztiok.

Badakizue, bururatzzen zaizkizuen «labankada» guztiak hemen agertzeko postontzia dago pisuan.

• **Hau...Hauko erredakzio taldea:** Adi!! Erasorik ez erantzunik gabe. Sorginen Biltzarra.

• **Iurgi:** Hara gure diplomatikoa! Gustua hartu diezu konpartsarteko harreman eta zeure buruaren promozionatzeari, e? Sorginen Biltzarra.

• **Mentxu (alias "Superwoman"):** ia gaupasen asuntu hori pixkat lasaiago hartzen duzun! Bat egitea, ongi, baina bi jarraieran... Sorginen Biltzarra.

• **Eguzkiko Sonia:** "eska-ker" ezizena dagokizu, azkenaldi honetan parranda bat ere ez duzulako egin

Neska txintxoia bihurtzen ari ote? Sorginen Biltzarra.

• **Hau...hau erredakzio taldea:** ez duela gure lurrean zentsurak funtzionatzen? Ja!!! Zuek bai faxistak! Sorginen Biltzarra eta EHko zentsura ta gehiegikerien aurkako komiteak.

• **Iñako (Hor dago):** Noiz eskaini behar diguzu strip-tease famatu hori? Txikerra.

• **Aidra eta Galizia (Algara):** A ze parea karkola ta barea, bata mozkortia eta bestea mozkorzalea. Txikerra.

• **Sorginen Biltzarrari:** Zuen hitzak ustelak dira, ez dugu etsiko. Hau...hauren zentsura komizioa.

• **Marijo (Eguzki):** Kontuz marrazkiloekin, badakigu Arabarra izanda San Prudentzio eguneen jatea

atsegin duzula baina kontuz zeren ez dugu utziko gure konpartsakideak zure jana izaten. *Gora Rioja Alavesa.*

• **Gorka:** Ez al zinen zu argazkikoa? Zurea al da gorputz hori? Prest al zaude gurekin gau ero bat pasatzeko? Azkeneko hiru galderei baietz erantzun badiezu daituguzu. *Gora Euskal Drag-Queens.*

• **Iurgi:** Pitxurrina naiz. kontzertua bukatu ondoren zure zain egon nintzen. Agertu ez zinenez, beste mutil batekin joan nintzen. Orain, benetako gizon bat zer den badakit. Ah! Ez deitu etxera, mesedez.

• **Zalo(a)nikari:** LARANJA erdia aurkitu duzunetik elkarteko ekonomia lur azpian. Itzuli zaitez.

Komando txalaparta.

• **Kanpi:** Go home. Ez zaitugu nahi Lekeition. Komando txalaparta.

• **Joxemi:** Faltan botatzen zaitugu. Nork joko gaitu orain? Lekeitioko Kimuak. Sado-masokista adarra.

• **Patri:** Utzi karrera, hori ez da zurea. Jendea kalean behar dugu eta ez barruan. komando Txalaparta.

• **Sergiño:** Badakigu nor den topo. Orain guk daukagu abantaila. Txikerra.

• **Sergiño:** Urtenda zagoz. Neskak ikusi eta berehala jartzen zaizkizu begiak ÑirÑirka, baina gero ankar-tean Ñukutasuna daukazu. Txikerra.

Biktimari biktimista deituz mozorratzen da erasotzailea



Euskarak atzerantz egin badu euskaldunon erabakiz edo arrazoi naturalengatik ez dela izan frogatzeko, nahi-

koa da historiaren errepa-soa egitea:

• Gaztelak Nafarroa eta Baskongadak konkistatu zituenetik orain arteko

aginteak.

• Jauntxoek erdara hautatu izana herri xumea diskriminatu eta botere handiagoa izateko.

• Elizan, administrazioan eta irakaskuntzan euskara erabiltzearen aurkako debekuak, Francoren dikadura baino askoz lehenago-koak.

• Frantziako iraultzaz geroztik frantsesaren aldeko eta beste hizkuntzak debekatzeko politika.

• Francoren debekuak eta zigorrak euskara erabiltzeko: eskoletako eratzunak, ikastolen ilegalizazioa, atxilotak, abizenen erdaratzea, euskal izenen debekua...

• Gaur egungo erasoak: Euskalerria Irratiaren aurkako epaia, zenbait politikoren adierazpenak (el euskera no es cultura, Iengua no de comunicación, iengua menor, iengua de andar por casa, ikastolak indarkeriaren aldeko eskolak dira, ...).